

## **(Aurkezpena:)**

Momentua iritsi da. Gure produktua aurkezteko momentua. Ondasunak eta zerbitzuak behar beharrezkoak dira gaur egungo gizartean eta horregatik erronka interesgarria iruditu zaigu Start Innovan parte hartzea, negozio ideia berri bat sortzeko eskatzen baitigute.

Ez da erraza ideia errentagarri bat aurkitzea, gaur egun ondasun eta zerbitzu gehienak asetuak dauzkagulako. Hala ere taldean egiaztatu dugu hain gizarte aurreratu honetan oraindik ere zenbait akats daudela. Agian akats terminoa ez da hoberena baina hobetu zitezkeen gauzak existitzen dira merkatuan. Eta zein da izan dugun burutazioa?

Hasteko, asko hausnartu ondoren, 3 negozio ideia bururatu zitzaizkigun. Lehenengoa supermerkatuetara bideratua zegoen. Eta, zein da ba? Gure ustez ez da batere praktikoa gaur egun oraindik ere supermerkatuetan kutxa- zainak egotea (Lanbide hau duten pertsonen errespetua faltatu gabe). Ez zaigu efizientea iruditzen erosketak "karrito" batean sartzea, gero berriz handik ateratzea, ordaintzea eta ondoren poltsetan sartzea. Horregatik pentsatu genuen txip moduko batzuk sortzea, "karritoan" egongo zena eta eginkizun finko bat izango zuena. "Karritoan" produktu bat sartzen dugun bakoitzean, txipak hau igarriko zuen eta erosketa bukatzean aireportuetan dauden eskanerren hantzeraren duen eskaner batetik pasako genuen "karritoa". Eskaner honen funtzioa prezioen batuketara egitea izango zen eta guk, makina baten bitartez ordaindu ahalko genuen. Honen bitartez, "karritoa" kotxeraino eramanez ahalko genuke eta kotxera erosketak sartu, edo kotxea ez badugu, erosketak poltsetara sartu ahalko genuen, erosketa arinagoa eta azkarragoa bihurtuz.

[http://www.elespanol.com/ciencia/tecnologia/20161212/177733028\\_0.html](http://www.elespanol.com/ciencia/tecnologia/20161212/177733028_0.html)

2. burutazioa ezberdina izan zen. Ideia hau higiezinaren sektorean sartu egiten da. Pertsonak etxez aldatu nahi dutenean, oraindik ere prozesu luze eta gogor batetik igaro behar dute. Denbora asko eman behar dute etxe guztiak bisitatzen eta hauek aztertzen. Ez bakarrik etxean interesatuak daudenak baizik eta etxearen jabeak ere. Hauek beti egon behar dute etxean bezero bat etxea bisitatu nahi duenean. Zein da arazo hau sahisteko edota hobetzeko modu bat? Erantzun berriz ere teknologian aurkitu genuen. Virtual Reality edota Realidad Virtual makineriak arazko hau konpontzeko era hobezina dela iruditu zitzaigu. Ideia, Virtual Realityren bidez etxe bakoitzaren plano bat egitea izan zen, etxea makineria honen bitartez ikusi ahal izateko. Negozio honek denbora asko aurreztuko zien pertsonen eta prozesu erraztuko zuen. Imajinatzen ahal duzu, edozein etxe virtual realityren bidez ikusi ahal izatea? Bezeroak gustuko ez dituen etxe asko baztertu ahalko zituen eta gustuko dituenak bisitatu. Orain orduak eta orduak eskatzen dituen prozesua, segunduetara murriztu ahalko zen.

3. burutazioa eta gure negozio ideia egiteko erabiliko duguna, hurrengo sekzioan azalduko dugu, Balore Proposamena deituriko atalean.

## **Balorezko proposamena:**

Proiektu hau hotelera joan behar diren bezeroei lana errazteko sortu dugu, baina baita hotel bertakoei laguntzeko ere. Zer da merkatuan berezi bihurtzen gaituena? Praktikotasuna.

Konturatu gara gaur egun enpresa gehienak gauzak hobetzeko asmoa dutela, baina era berean bezeroaren erosotasuna bigarren maila batean uzten dutela, hauek leialtzat hartzen dituztelako. Gure ideiak sistema hau aldatu egingo du, enpresa berriek zerbitzu egokiagoak eskaintzen badituztelako, bezeroek beren leialtasuna aldatu dezaketelako eta enpresa berrien eskaintza probatuko dutelako. Ondorio zuzen moduan, beste enpresek haien bezeroak alde egiten dutela ikustean estrategia aldatu beharko dute eta gure metodoa erabili nahiko dute baina jakina, horretarako, gurekin negoziatu beharko dute.

Bezeroak bai oportretan edo bai lan kontuengatik hotelera iristean lasai egon eta deskantsatu nahi dute eta higuingarria izaten da harreran itxaroten egon beharra gelako giltza bat lortzeko. Horregatik, gure proiektuak prozesu neketsu hori alde batera utzi eta gelara sarrera asko erraztuko luke. Gainera, gaur egungo mundua geroz eta teknologiarri eta erraztasunei lotuago dago eta horregatik gure proiektua abantaila handia izan daiteke.

